

TIBURTZIO DONEAREN PESTAK



Leitza 2022

42. zenbakia



"PESTAK BERRIZ BESARKATUZ!!! GORA PESTAK
AXE ASTITZ ALKOTZ



"BETIKO PESTAK "
MADDI ITURBE SAENZ

AZALAREN LEHIAKETAN
PARTE HARTU DUTEN
KARTELAK



"LEHENG DOINUA ORAINGO ERRITMOAN"
JON ARRIZURIETA
PAULA PERURENA
LEIRE RETEGI
SAIOA SAGASTIBELTZA

Eskerrak eman parte hartu duzuen guziri eta **ZORIONAK**
AMAIA IPARRAGIRRE BALEZTENA "OIN PUNTETAN ARIN" kartelarekin irabazi duenari.

ALKATEAREN AGURRA

Kaixo, leitzararak:

Nahi eta espero baino denbora gehiago pasatu da azken aldiz pestetako agurra idatzi nuenetik. Tartean pandemia bat, bi urte eta hamaika gertakari igaro dira.

Covid-19ak eragindako pandemiak mundua geratu zuen eta konfinamenduek zein mugikortasun murrizketek elkarrengandik asko aldendu gintuzten. Halere, garai txarretan gure herriak erakutsi izan duen modura eta abes-
tiak dioen bezala, "txarrenari onena" ateratzen asmatu genuela esanen nuke eta sortu ziren oztopo eta behar han-
diei irtenbide kolektiboez erantzutea lortu genuela. Urrunketen garaian, herri gisa erantzun genuen eta komuni-
tate hurbila eta solidarioa garelako erakutsi genuen, beste behin ere.

Horregatik guztiagatik, garai ilunenetan haien onena eman duten profesionalei eta auzolanean aritu diren herri-
tar guzti-guztiei bihoakie hemendik nire eskerrik beroena.

Bizitzen ari garen garai hauek argitasun handikoak edo egonkorrenak ez badira ere, herriko pestetan berriro
elkartzeko eta ospatzeko aukera izanen dugu aurtan eta, zalantzarik ez dago, denok gustura berreskuratu eta par-
tekatuko ditugu horren gureak ditugun ohitura eta momentu kuttunak. Arlo honetan, ezin ahaztu Pesta Batzor-
dearen lan baliotsua. Aurreko bi urteetan, pestak ospatzerik izan ez bagenuen ere, momentuko baldintzen arabe-
ra kultur programazioa osatzen buru-belarri aritu baitira. Eta haiekin batera, herriko eragileak ere, ezin ahaztu.
Guztiek egunerokotasunean egiten duzuen ezinbesteko ekarpenagatik eta saretzen dituzuen harremanengatik,
eskerrik zintzoena lerro hauetatik.

Aurtengo pestak gogoz hartuko ditugu, beraz, baina betiere berdintasunean eta errespetuan oinarritutako
harreman baikorrak nagusitu daitezela gure bizitzetan bezalaxe pesta garaian ere, Leitzan ez baitugu eraso sexis-
tarik onartuko.

Garai edo zikloak aipatuta, horiei tamaina hartzea ere garrantzitsua da eta, ondorioz, adierazi nahi nuke aurtan-
goa alkate gisa egingen dudan pestetako azken agurra dela. Bi legealdi, 8 urte, beteko ditut ardura honetan, eta
ohore zein erantzukizun handia izan da Leitzako Udalaren ordezkaria izatea. Ibilbide honetan bidelagun izan ditu-
dan udal taldeko kide guztiei, udaleko langile guztiei eta nire familiari eskerrik sentituena eskaini nahi diet, denon
arteant lantalde politak eta beharrezko oreka aurkitzea lortu dugulakoan bainago. Bidelagun onekin, aldaparik ez!

Modu batera edo bestera, herrigintzan eta naziogintzan nire ekarpena eginez jarraituko dut aurrerantzean ere,
sinetsita bainago Euskal Herrian etorkizun aske, berdinzale eta justua marraztu nahi badugu, denok eman behar-
ko diogula geure alea elkarrekin osatzen dugun proiektu kolektiboari.

Leitzara itzuliz, aurretik dugun ia urte oso honetan berriz, bada zer eginga eta zer moldatua; badira ere fruitua
emanen duten hainbat proiektu abian. Baina denetan betebeharrak garrantzitsuena azpimarratu beharko banu,
gure herriko bizitasunari eta nortasunari eustea dela esango nuke. Leitzan herri bizi-bizia da eta aurrerantzean ere
hala izaten segitzeko denon esku-hartzea eta auzolana beharrezkoak izanen dira. Herria egiten jarraitu behar
dugu, mugimenduan ez dagoen herriak atzera egiten baitu.

Nire agurraren azken hitzak pestetan gure artean izan ezinen ditugun guztientzat dira. Pestetan ere, irribarre
batez, gogoan izanen zaituztegu.

Mikel Zabaleta Aramendia

LEITZAKO ALKATEA



Leitzako Udala



atekabeltz
herrigunea




ABUZTUAK 6 LARUNBATA

REPARTO EGUNA

14:00 Eskelarien bazkaria Aurreran

16:00 Auzoz auzo, PLAZAOLA aldizkariaren banaketa trikitilari, txistulari, akordeoilari eta gaiteroen laguntzaz.



ABUZTUAK 7 IGANDEA

UMEEN EGUNA

- 09:00** Diana txistulariekin
- 10:00** Korporazio txikiak udal ordezkariekin gosalduko du
- 10:30** Gurgildun zezenen entzierroa
- 11:00** Umeen txupinazoa botako da
- Ondoren** Aurrera Pilota Eskolako gazteak arituko dira plazan
- 11:30-13:30** Denok Bat guraso elkarteak antolaturiko jolasak plazan
- 17:00** Erraldoien Konpartsa plazatik abiatuta
- 18:30** Aurrerako Dantzari Txikien ikuskizuna eta umeen Ingurutxo IREKIA plazan
- Ondoren** Goxokiak banatuko dira
- 20:30-22:30** XAIBOR Diskofesta
- 22:30** Suzko zezena



ABUZTUAK 10 ASTEAZKENA

PESTA BEZPERA

- 12:00** "Etxera bidean" mosaikoa plazan Leitzako Sarek antolatuta
- 13:00** Kantujira KUXKUXTU-rekin plazatik abiatuta
- 13:30** Jubilatuen bazkaria
- 14:00** Kantu-bazkari herrikoia karrapen
- 18:00** TXUPINAZOA eta Plazaola Aldizkariko azalaren irabazleari sari ematea
- Ondoren** Incansables Txarangak, txistulariek, Leitzako Erraldioen Konpartsak eta gaiteroek herrian barrena kalejira eginen dute
- Ondoren** Zuzeneko musika emanaldia Aurrerako atarian
- 22:00** Suzko zezena
- 23:00** BURUTIK eta PLEURA taldeen kontzertua
- 23:00** DJ-en ELEKTRO TEKNO gaua Atekabeltzen
- 01:00** Incansables Txarangaren erronda



ABUZTUAK II OSTEAGUNA

TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

08:00 Diana txistulariekin

09:00 Entzierroa eta behiak plazan

10:30 Hameiketako irekia karrapen

12:00 Aurrera Dantza Taldeko
EZPATADANTZARIAK plazan

Ondoren Afizionatuen arteko pilota partidak
plazan

13:00 Aurreratik Incansables Txaranga
aterako da

17:00 Zuzeneko musika emanaldia
Aurrerako atarian

18:00 Zezenak plazan

19:00 Herri kirolak plazan:

Aizkoran

Bakarka: MALEN BARRENETXEA

Bikoteka: LAIENE PIKABEA-IRATI ASTONDOA
NEREA SORONDO-UXUE ANSORREGI

Harria jasotzen: LUR ERREKONDO eta LIERNI
OSA

Giza proban: JOSEBA SANTXEZ

Ondoren Goxokiak banatuko dira

19:00 "Luze edo Motz" bakarrizketa saioa Atekabeltzen

19:30 Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako
dira

21:00 Leitzeko ingurutxoia nahi duen guziarentzat plazan

22:00 Suzko zezena

23:00 GOXUA'N SALSA


01:00 Incansables Txarangaren erronda



ABUZTUAK 12 OSTIRALA

PESTA BIGARRENA

- 08:00** Diana txistulariekin
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan
- 11:00** Txorotxaranga
- 12:00** Plazaz Plaza txapelketako pilota partida plazan.
Goiuri Zabaleta - Iera Agirre / Maddalen Etxegarai - Oihana Orbegozo
- 13:00** Paella prestaketa eta jatea karrapen
* (zehaztasun gehiago oharretan)
- 13:00** Aurreratik Incansables Txaranga aterako da
- 17:00** Leitzeko Bertso eskolakoen emanaldia
Aurrerako atarian.
- 17:30** Zezenak plazan
- 19:00** Aurrera Dantza Taldearen emanaldia plazan
- Ondoren** Goxokiak banatuko dira
- Ondoren** Incansables Txaranga eta buruhaundiak
aterako dira
- 22:00** Suzko zezena
- 00:00** GOZATEGI
- 00:00** HERDOIL eta KALEKO URDANGAK
Atekabeltzen
- 02:00** DJ BULL Peritzeko txoznan
- 03:00** Leitzeko ingurutxoia nahi duen
guziarentzat plazan



ABUZTUAK 13 LARUNBATA

PESTA HIRUGARRENA / GAZTE EGUNA

- 08:00** Diana txistulariekin
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan
- 11:00-13:00** Bubble jolasak plazan
- 12:00** Erraldioen Konpartsa eskolatatik abiatu eta Amazabal eta Patxi Arrazolara
- 13:00** Aurreratik Incansables Txaranga aterako da
- 13:00** Poteo musikatua plazatik abiatuta
- 15:00** Brindisa eta bazkaria karrapen
- 16:30-19:30** Bubble jolasak plazan
- Ondoren** Goxokiak banatuko dira
- 18:00** Pilota jaialdia ASPE-ren eskutik Amazabal pilotalekuan:
Zabala-Gaskue / Salaberria-Tolosa
AltunaIII-Rezusta / Ezkurdia-Zabaleta
- 19:00** DJ REIMY plazatik abiatuta
- 19:30** Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako dira
- 22:00** Suzko zezena
- 23:00** ZEA MAYS eta RAIMUNDO EL CANASTERO
- Ondoren** DJ GARROTE plazako txoznan
- 01:00** Incansables Txarangaren erronda



ABUZTUAK 14 IGANDEA

PESTA LAUGARRENA

- 08:00** Diana txistulariekin
09:00 Entzierroa eta behiak plazan
11:00 Aparra plazan
13:00 Txakolin dastaketa plazan
13:00 Incansables Txaranga plazan
15:00-19:00 Ur txirrista Errekaldeneko atarian
17:00 Zezenak plazan
18:00 Bertsolariak plazan:
Alaia Martin, Jexux Mari Irazu,
Miren Artetxe, Sustrai Colina eta
Xabat Illarregi.
Ondoren Goxokiak banatuko dira
Ondoren Incansables Txaranga eta
buruhaundiak aterako dira
21:30 Suzko zezena
22:00 Herri aparia plazan
01:00 Incansables Txarangaren erronda
00:00 DJ JO TA TXO Peritzeko txoznan



ABUZTUAK 15 ASTELEHENA

PESTA BOSTGARRENA

08:00 Diana txistulariekin

09:00 Entzierroa eta behiak plazan

11:00 Erraldioen Konpartsa eskolatatik Manuel Lasartera eta plazan bukatuz

12:00 Herri kirolak plazan:

Harria jasotzen: JOSETXO URRUTIA

Aizkoran: JON REKONDO-JULEN OLANO

HODEI EZPELETA-OIER KAÑAMARES

13:00 Aurreratik Incansables Txaranga aterako da

14:30 Aurrerako bazkideen bazkaria elkartean

18:00 Entzierroa eta ondoren zezenak plazan

19:00 Helduen Ingurutxoia plazan

Ondoren Goxokiak banatuko dira

22:00 Suzko zezena

23:00 TXINGONES DE LA RENCLE mariatxiak

Ondoren "Pobredemie" Incansables Txarangarekin



PROGRAMACIÓN DE FIESTAS DE SAN TIBURTZIO

6 de Agosto, sábado

DÍA DEL REPARTO

- 14:00** Comida en el Aurrera
16:00 Reparto del programa por los barrios, acompañados por los músicos

7 de Agosto, domingo

DÍA DEL NIÑO

- 09:00** Diana
10:00 Almuerzo de la corporación txiki
10:30 Encierro de toros con ruedas.
11:00 Chupinazo infantil
Después Partidos de pelota a cargo de la Escuela de Pelota Aurrera
11:30-13:30 Juegos infantiles a cargo de la asociación de padres y madres Denok Bat
17:00 Comparsa de Gigantes desde la plaza
18:30 Actuación de los dantzaris txikis del Aurrera e Ingurutxo abierto
Después Reparto de caramelos
20:30-22:30 Discofiesta Xaibor
22:30 Toro de fuego

10 de Agosto, miércoles

VÍSPERA

- 12:00** Mosaico "Etxera Bidean" organizado por Sare de Leitzia
13:00 Pasacalles a cargo de Kuxkuxtu
13:30 Comida organizada por el Club de Jubilados
14:00 Comida popular amenizada con cantos en el karrape

- 18:00** Chupinazo y entrega de premios
Después Pasacalles con charanga, txistularis, gaiteros y la comparsa de gigantes y cabezudos
Después Música en directo en el Aurrera
22:00 Toro de fuego
23:00 Burutik y Pleura
23:00 DJ's electro tecno en el gaztetxe Atekabeltz
01:00 Charanga Incansables

11 de Agosto, jueves

SAN TIBURTZIO

- 08:00** Diana
09:00 Encierro y vacas
10:30 Almuerzo popular en el karrape
12:00 Actuación de los ezpatadantzaris del Aurrera
Después Partidos de pelota de aficionados.
13:00 Charanga Incansables
17:00 Actuación de música en directo en el Aurrera
18:00 Vacas
19:00 Deporte rural
Después Se repartirán caramelos
19:00 monólogos en el gaztetxe Atekabeltz
19:30 Charanga Incansables y cabezudos
21:00 Ingurutxo
22:00 Toro de fuego
23:00 Goxua'n Salsa
01:00 Charanga Incansables

12 de Agosto, viernes

- 08:00** Diana
- 09:00** Encierro y vacas
- 11:00** Txorotxaranga
- 12:00** Campeonato de pelota
Plazaz Plaza:
Goiuri Zabaleta - Iera Agirre /
Maddalen Etxegarai - Oihana Orbegozo
- 13:00** Preparación y degustación de
paellas en el karrape
- 13:00** Charanga Incansables
- 17:00** Bertsolaris de la escuela de
bertsos de Leitza en el Aurrera
- 17:30** Vacas
- 19:00** Actuación de los dantzaris del
Aurrera
- Después** Se repartirán caramelos
- Después** Charanga Incansables y
cabezudos
- 22:00** Toro de fuego
- 00:00** Gozategi
- 00:00** Herdoil y Kaleko Urdangak en el
gaztetxe Atekabeltz
- 02:00** DJ Bull en la txozna del Peritza
- 03:00** Ingurutxo

13 de Agosto, sábado

DÍA DE LA JUVENTUD

- 08:00** 08:00 Diana
- 09:00** Encierro y vacas
- 11:00-13:00** Juegos Bubble en la plaza
- 12:00** Comparsa de gigantes y
cabezudos desde las escuelas
hacia Amazabal y Patxi Arrazola
- 13:00** Charanga Incansables
- 13:00** Poteo musical desde la plaza
- 15:00** Brindis y comida en el karrape
- 16:30-19:30** Juegos Bubble en la plaza
- Después** Se repartirán caramelos
- 18:00** Partidos de pelota profesional
masculina en el frontón Amazabal
a cargo de la empresa Aspe:
Zabala-Gaskue / Salaberria Tolosa
Altunall-Rezusta / Ezkurdia-Zabaleta
- 19:00** DJ Reimy desde la plaza
- 22:00** Toro de fuego
- 23:00** Zea May y Raimundo el canastero
- Después** DJ Garrote en la txozna de la plaza
- 01:00** Charanga Incansables



14 de Agosto, domingo

- 08:00** Diana
- 09:00** Encierro y vacas
- 11:00** Espuma en la plaza
- 13:00** Degustación de txakoli
amenizada por la Charanga
Incansables en el karrape
- 15:00-19:00** Tobogán acuático
- 17:00** Vacas
- 18:00** Bertsolaris en la plaza
- Después** Se repartirán caramelos
- Después** Charanga Incansables y
cabezudos
- 21:30** Toro de fuego
- 22:00** Cena popular en la plaza
- 01:00** Charanga Incansables
- 00:00** DJ Jo ta Txo en la txozna del
Peritza

15 de Agosto, lunes

- 08:00** Diana
- 09:00** Encierro y vacas
- 11:00** Comparsa de gigantes y
cabezudos desde las escuelas
hacia Manuel Lasarte para
finalizar en la plaza
- 12:00** Deporte rural
- 13:00** Charanga Incansables
- 14:30** Comida de soci@s del Aurrera
- 18:00** Encierro y vacas
- 19:00** Ingurutxo
- Después** Se repartirán caramelos
- 22:00** Toro de fuego
- 23:00** Txingones de la Rencle
- Después** "Pobredemí" con la Charanga
Incansables

OHARRAK

- 1 Udalak ez du zezenketetan gerta daitezkeen istripuen erantzukizunik hartzen.
- 2 Egitaraua borondatearen truke banatuko da. Udaletxean eta liburu-dendetan salgai izanen da banaketa eguna eta gero.
- 3 Zezenetan dabiltzanek ihesbide errezagoa izan dezaten, hesien gainean inor ez esertzea eskatzen da.
- 4 16 urtez azpikoek debekatuta dute zezenketan ateratzea.
- 5 Arratsaldeko zezenen saioaren ondoren eta musika taldeak bere lana behar bezela egin dezan, oholtza libre utzi.
- 6 Antolatzaileak ez du bere gain hartuko zezensuzkoan gerta litezkeen erredura edo bestelakoen erantzukizuna.
- 7 Paella prestatze eta jatea:
 - Aurten ez da lehiaketarik izanen.
 - Nork bere sua eta osagaiak eraman behar ditu sukaldatzeko.
 - Bertan bazkaltzeko aukera izanen denez, urtero bezela, mahai eta aulkiak bertan izanen dira erabilgarri.
- 8 Antolatzaileak ez ditu egitarauko ekitaldi guztiak bere gain hartzen. Horiek jende askoren borondatezko lanari esker lortu dira.
- 9 Antolatzaileak ez du bere gain hartuko umeentzako aparrak sor litzakeen alergien erantzukizuna.

PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEAREN OHARRAK

- Plazaola Aldizkariaren antolatzaileak (Aurrera Kirol Elkartea) ez du zertan ados egon argitaratzen diren idatzietako iritziekin.
- Lanak bidaltzen dituztenek beren izena jakinarazi beharko diote aldizkariaren antolatzaileari; sor litezkeen legezko arazoen erantzukizuna idazkien egileena izanen delarik.
- ***Gure eskerrik zintzoenak aldizkari hau osatzeko beren lanekin lagundu duten idazle/egile guztiei, azalaren lehiaketan parte hartu dutenei eta baita ere argazkiak utzi dizkiguten Luze, Javier Aranburu, Xabier Arraras eta Leire Karrerari. Bejondeizuela denei!***




"BURUHAUNDIAK PREST!" **LIHER FERNANDEZ ZUBELDIA**-ren lana izan da
16 urtetik beherakoen artean irabazlea

ZORIONAK



"DANTZA DEZAGUN"
LIHER FERNANDEZ ZUBELDIA



"SAN TIBURTZIO"
URKI OTAEGI SAGASTIBELTZA



"LEITZAKO PESTAK ILARGIAN"
LIHER FERNANDEZ ZUBELDIA

Kaixo Leitzar,

Ezohiko bi urteren ondoren, hemen gara berriz San Tiburtzio pestak ospatze-ko gogo eta asmoz.

Bi urte hauek gure ohiko bizimodua erabat aldatu dute eta baita gure egunero-ko zereginak ere. Aurreraren Kirol Elkartean ere bertan behera gelditu behar izan ziren hainbat ekintza eta ekitaldi pandemiearen eraginez, baina ez gara geldik egon! 2021-2022 denboraldia kirol arloari bultzada haundi bat emateko baliatu dugu. Jende berria indar haundiz eta gogotsu dabil arlo honetan eta arrakasta haundiz jarraitzen du zorionez.

2021ean Aurreran lehenengo aldiz txirrindulari taldea sortu zen eta beraien ibilbideari hasiera emateko aurkezpen ekitaldi dotore eta arrakastatsua egin zen Herri Aretoan. Taldeari gero eta kide gehiago batzen ari zaizkio; bertako zein inguruko herrietakoak. Lan haundia eginez eta gogotsu, lasterketak gero eta hobeki bukatzen dituzte eta oraingoz garaipen bat ere lortu dute Joanes Olai-zolaren eskutik. Pozgarria benetan!

Aurrerako Pilotariak ere ezin hobeki dabilta txapelketa desberdinetan parte hartzen, garaipenak lortuz eta baita txapel batzuk jantziz ere! Aipamen berezia merezi du Goiuri Zabaletak. Pilota arloan toki eta izena hartzen ari da herriko pilotari gaztea. Hainbat txapelketa irabazi ditu, Navarra Arena bete du, eta auskalo oraindik ere zenbat garaipen lortuko dituen. Zorionak denari!

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi Aurrerako futbol taldea aurten ematen ari den eraldaketa. Denboraldi honetan lau talde aritu dira; bi talde Arkixkil futbol zelain eta beste bi kiroldegian futbol sala modalitatean. Azken bi talde hauek (bata neskena eta bestea mutilena) liga eta kopako txapeldun izan dira. Arkixkil-len aritu diren taldeak berriz, kadeteak itxura ona eman dute denboraldian zehar eta talde nagusia berriz ligako txapeldun izan da Preferenterako igoera lortuz. Ezin aipatu gabe utzi arlo honetan sortu berri den lan talde berria. Ziur gaude hurrengo urte hauetan aldaketa esanguratsu bat emango dela. Txalotze-koa denen lan bikaina!

Kirolaz gain, Aurreran bada pestarako ilusioa. Horren adibide da erraldoi eta buruhaundien konpartsa. Pandemiaren eraginez, hasierako ibilbidean geldialdia izan zuen arren, ilusioz ari dira lanean. Beraien ikuskizunekin herriari ematen dioten bizi eta alaitasuna bistakoak dira. Bejondeizuela!

Besterik gabe, ZORIONAK eta ESKERRIK ASKO modu batera edo bestera zuen babes eta lanarekin Aurrera Kirol Elkartea bizirik eta herriarentzat lanean jarraitzea posible egiten duzuen guztioi.

Pesta zoriontsuak igaro eta zaindu dezagun elkar.

Aurrera K.E-ko zuzendaritza



AURRERA KIROL ELKARTEA

Santiburtzio



2 urte eta gero,
koronabirusaren ondorioz,
hementxe gatz
pestak ospatzeko ilusioz.



Alai eta ongi pasatzeko
Leitzarrak gaude dantza eta parranda egiteko gogoz.
Pestak ailtatzeko pozaren-poz
Bost egunetan dena emateko asmoz
nahiz eta indarririk gabe geratu poderioz.
Zu ere gurekin zatoz!



Naiara Juanikorena

Ateraldik eta ixtorik

EGUN BATEAN TABERNAN SARTU ETA BESTEAN ATERA

Norbaitek esan lezake “Hori erreza dok/don. Gaueko hamabik bost gutxitan sartu tabernan eta hamabik eta bostetan atera”. Bai zera! Hori baino egonaldi luzeagoa egiten zuten. Igande goizean argimezara etortzen ziren. Ondoren usulez ase eta musean edo trukean hasten ziren. Erdie eta erdie yokatzen zuten eta batzutan dirue ere bai. “Erdie eta erdie”. Honek esan nahi do litro baten balioa yokatu, eta horrekin litro erdi bat edan eta balioaren beste erdiarekin galletak hartu. Horrela iragotzen zuten egun guzia tabernan astelehen goizeko ordubiak aldera arte. Batzuk esaten dute moskor kuadrilla bat zirela. Bai. Batzuk moskor gorotz eginda bukatzen zuten. Baina beste funtzio bat ere bazuten. Herriko gorabeheretaz hitz egin eta kritika egiten zuten. Elizgizonak, herrigizonak eta beste edozein herritar ez zen libre esamesatik. Eta hori garai hartan beharrezkoa zen. Tabernako egonaldi hau egiten zuten agureak Euskal Herriko herririk gehienetan baziren. Zuberoan ere galdetu izandu dut eta han ere bazirela hori egiten zutenak esan zidaten. Norbaitek honi buruz doktorego tesia egin nahi badu hor dauka gaia.

ABADE EZINSOPRITTUE

Don Inazio apez jatorra dok. Sotanari korapiloak egin eta bera aritzen dok egur hausten. Eta yokoa hasten denen esaten dik: “Musen gezurre libre”. Eta edozeini laguntzeko beti prest. Guk barrutiek alantze itxi giñuenean kotxeroak bere morroiek bialdu zetien gauez alantze moztera. Gero, elorri inguratu giñien eta ordun kotxeroak esan zeuen lur hure ez zela gurea. Baño guk lur hori erregistratue giñien eta paperak don Inaziori emen ginezkeioan eta hark zuzendu zien gauze. Majiñebati lagundutako apez dok hori.

Don Inazio herrin ongi ikusie zeok eta abade zittal, ezinsoprattu horrek ezin dik eraman hori. Obispoari keja egin zeioan Don Inaziok meza abudoegi, azkarregi ematen zuela. Obispoak deitu eta bere aurren meza eman zien. Eta obispoak ontzat eman. Aleie meza ongi ematten zuela.

Abadek hobeki egingen likek bere sermobek hobeki prestatuko balittu. Noiz atertu ez dakien erretolikek hasten zetiek. Nahiago diit horren sermobek entzun

baino bizkarrez harriketan ibilli. Sermobek egin behar dik gurti belarra bezela ziztu: aleie, gurtie baztarretatik zintzilik dauden belarrak kenduta apaintzen den bezala, sermobeia ere ziztu.

APEZA HAUNDIZKIRI LUXINTXE EGITEN

Lehengoan yoan nindduen pazkoazkoa egitera. Apeza heldu huen gure jaune emanez nire aldera, eta herriko haundizki bat ikusi zien beste alden eta ni alde batera utzita, harengana yoan huen gure jaune ematera. Jainkoan aurren denak berdiñek omen gattok. Hala izanen dok. Apezen aurren ez biñipin.

SAN MIEL AINGERUAREN AZPIAN DAGOEN DEMONIOA ASKOZ ERE HOBEA

Udoin ari giñozen aldabioan. Mendi lanetarako izendatu zuten herrigizona giñien nagusie. Bere koñadua lau egun bakarra yoan huen lanera, eta hogeita bost egun apuntatu zezkeion lanera yoan balitz bezala, herriri kobratzeko. Herrik erosi zetien alantze arantzaduneko rolloak itxituk egitteko eta herrigizon horrek zortzi rollo bere etxera eraman zetien, bere etxe inguruko lurrik ixteko. Mendie kandelatu zenen Iruñe aldeko kontratista batek sekuleko tanto pille yo eta hartu zien basoa. Aise yo zetien tantoak. Herrigizon horrekin elkar hartute zegoan eta markatute zeuden baño askoz arbol gehio bota zetien. Han elizen aldare nausin gañen bazeok san Miel Aingerun azpin demonio bat. Ba demonio hori herrigizon izentatu eta hori baño askoz ere hobea izanen huke!

LEURRI ALDAKORRAK

Dendari maltzurrek, ollaskoak erosteko, pisue gutxigo pisatzen duela yarrie zeukek. Behin esan zeyoan neskameri: “Maria, ekartzazo errebie”. Eta Mariak galdetu zeyoan: “Saltzekoa edo erostekoa?” Aleie, saltzekoa zien ttikixegoa eta erostekoa haundi-xegoa. Egie dok bai kontzientzie asto zahar batek jan zula.

IGELDOKO TXIMUK BAÑO HOBEEKI PINTATUTE


Abisatu giñeioan atso horri bere amagiarreba txar zela, ezagera galdu zuela eta azkenetan zela. Halare ez huen presaka etorri. Sator larruz egindako abrigoa yantzita, lepoan gargandillek patute eta igeldoko tximuk baño hobekigo pintatute etorri huen noizbatte.

Utz ditzagun lasai agureak yokoan eta herrie gobernatzen eta goazen beste ateraldi batzuk kontatzera.

PARDELA BIDERA ATERAA

Ezkonberritan ongi konpontzen ziren baina gero hasi ziren inki-manka. Gizona enasa eta axolkabe hutse zen. Zerrie baño gorotzagoa zen eta etxeko eta kanpoko lanik gehienak andreak egiten zituen. Eta gainera alporja honek igande eta yai egun guztiak tabernan igarotzen zituen. Haserretu ziren eta asma-halak elkarri esan zizkioten. Gizonak etxetik alde egin behar zuela eta hasi zen pardela egiten. Uste zuen andreak urrikaldu eta esanen ziola ez yoateko eta etxean gelditzeko. Pardela bukatu zuenean gelan sartu eta prestatu zen beajerako eta andreari esan zion: “Ni banoa etxe hontatik”.

Eta andreak erantzun zion: “Zoaz Aragonen haruntza. Pardela bidera atera dozo”. (Andreak ordurako pardela hartu eta lehiotik kanpora harrike botaa zuen bidera).



HARRIAK, HARIAK ETA HIZKUNTZAK

Atsalde guzian aritu nintzen txinerako karaktereak ikasi nahien. Eguzkiaren piktograma nolakoa den. Eguzkiaren piktogramari azpian arrasto bat yarri eta egunsentia esan nahi duela eta abar. Leher egin nuen eta atera nintzen atarira burua argitzera. Inguruko mendiei begira egon eta gero plazara yoan nintzen. Plazaren ertzean, Basomeneko herriko bajaran, Maite Perurenaren HARRI HARI TOKI arropa berezien dendako eskaparateari begira yarri nintzen. Eta non ikusten dot iragarki bat sei hizkuntzetan: euskeraz, kastinganoz, ingelesez, frantsezez, txineraz eta japonieraz. Ikus ditzagun azkeneko bi hizkuntza hauek nola osatuak dauden:

TxinerazJaponieraz

石头	和	线	石	と	糸
Shítou	hé	xiàn	Ishi	to	ito
Harriak	eta	hariak	Harriak	eta	hariak

Leitzen bada leku bat Idoi izena duena. Idoik putzue esan nahi du eta japonieraz “ido” da putzue. Ni ez naiz filologoa eta ezin dut esan elkarrekin deus ikustekorik baduten edo ez baño antza badute.

Hizkuntza berri bat ikasteak mundu berri bat irekitzen du. Maitek iragarkia honenbeste hizkuntzetan yartzea oso asmo ona izandu da.





Etxe ondoko tellatupe hori da Kukurio lekua.

KUKURIOAK

Bada esanera “Sanjoan artoa eta ogia kanpoan”. Eta yendea beldur izaten da artoak, banabarrak eta gariak harriak txikitzeko. Udan bero zakarraren ondoren hodei beltzak azaltzen direnean eta tximisteka eta tormobeka hasten duenean ez da giro izaten. Eta ereta soñu beldurgarria entzuten denean sanjoan bezperan bedeinkatutako belarrak sutara bota, belak biztu eta etxeokak errezoan sukaldean. Apeza berriz kukurioak (conjuros) egiten harri yasa uxatzeko. Larraungo Etxarrin leku berezia dute kukurioak egiteko. Ikus argazkia.

Lehengo yendek inportantzi haundie ematten zion kukurioari. Ikus dezagun zer dioten kukurioari buruz “Catálogo del Archivo Diocesano de Pamplona”ko liburuek:

PITILLAS-Año 1604 ...Asimismo los demandantes pretenden que el vicario ha de conjurar los nublados, como se ha hecho siempre, sacando la imagen de Ntra. Sra., a la puerta de la iglesia. (Tomo 3, nº671).

VIDANIA-Año 1613. El Sr. Fiscal contra D. Domingo de Chinchurreta, beneficiado de Vidania, acusándole de andar comiendo y bebiendo en mesones y tabernas; además, teniendo obligación de conjurar los nublados, no quiso hacerlo un día en que fue requerido a ello. (Tomo 4, nº549).

ARRUAZU-Año 1617. El Sr. Fiscal, junto con el merino, jurados y vecinos de Arruazu, contra su abad D. Martín de Assiáin, acusándole de prolongadas ausencias de la parroquia, por lo cual no hace los conjuros; a ello le achacan el que haya caído un rayo que incendió una casa. (Tomo 4, nº1073).

EGURALDIAREN HIZTEGIA

Lanbroa (langarra baño txeiagoa), langarra, jito eurie (langarra eta euriaren artekoa), eurie, harrie, kazkarabarra, antziarra, izotza, izotzbeltza, kolle, kolle-zintzarrik, zardaye, dindaye, sargori, gainbero, atsaldetu (goizean eguraldi txarra eta atsaldean ontzen duenean), mullastik (hodei beltzen azpin hodei txuri ttikiak) eta abar. Ikus dezagun zer dion batek:

“Berdontzabart dena izar zegoan eta atzo berriz zardaye. Gaur goizen gure atariko motzaritzen gañen okillek yo do. Eta gero hodei beltzen azpin mullastik ekusi dittot eta horik eurie ekartzen due”.

ASTAITZ

Kutxa

*Behingoz ta betirako
ezbeharren kutxa itxi egingo dut.
Itxi ta bertan gorde
etsipenak, frustrazioak,
inpotentziak, konplazentziak,
koldarkeriak ta aurreiritziak.
Bizitza honetan, nere inguruan sortzen
joan zaizkidan
beldurraren kume guztiak,
izuaren kimu basatiak,
banan banan borrokatuz joan naiz,
txikitatik eraikiz joan naizen
trintxeretatik
batallak gaindituz joan naiz,
batzuk ozta ozta, nahiko metralla
barrenean pilatuta,
beste batzuk , ordea,
lasai ederrean ...*

*Noizpait errendizio zapi txuria
ateratzeko tentazioa izan badut ere,
azken unean,
ta aparteko indarra ateraz,
ikarak sortutako kateak
hautsi ditut...
eskuak odoletan baina bihotza libre...
Jadanik bada garaia
kutxa hori itxi, giltzapetu , ahaztu
ta zauriak goxatzeko*

*Begiak ireki ta burua altxatu,
irriparrez,
besarkatu,
dastatu,
gozatu,
laztandu, ...
... BIZITZAREN MAGALEAN*



HITZAK: GARBIÑE SAGASTIBELTZA LIZARRAGA
ILUSTRAZIOAK: ITZIAR FAGOAGA IRURTIA

Norena?

Batena, bestena,...

Esku batetik bestera...

*Denek nahi zaituzte jabegoan,
ta zu, ttiki,
ez ba inorena izan!*

*Ezin lotu lurrari
haizearen kide dena,
ezin, kate korapiloa
askatu gabe utzi,
argia bera,
zu zerorri izanik.*

*Nolatan utzi besteei
zure historia markatzen,
idazten, kantatzen, bizitzen,...
zurea besterik ez bada?*

*Zu zeu,
ezeren menpe, inoren zain,
adoretsu eta emankor!*



Incansables: halaxe sortu zen 2020ean urrezko ezteiak ospatu ezin izan zituen txaranga



Incansables bostekoa Basa-Kabin

Berriz ere pestak! Bi urte joan zaizkigu pandemiaren erruz pestarik gabe, baina berriz ere gainean ditugu eta gure kaleetan, Incansables txaranga izanen dugu. Honako idatzi hau, 2019an prestatu zen, Incansableen 50. urteurrena gogoratzeko. 2020ko pestetako Plazaolan argitaratzekoa zen, baina, pestarik eta Plazaolarik ez izaki, Aurreran gordeta gelditu zen. Txaranga hau nola sortu zen jakin nahi? Hauxe izan zen hasera...

Joaquín Ortega "Canario-k ongi gogoan du nola hasi zen abentura hura, eta bizi den artean ez zaio Leitzara ahaztuko, izan ere, txaranga bera, bertan sortu zen.

Musika beti izan da Leitzeko pestetako zutabe nagusietako bat. Incansableen aurretik, 1968, 1969 eta 1970n, adibidez, Tolosako Musika bandak jo zuen festetan. Gainera, programan ikus daitekeenez, ongietorri ofiziala egiten zitzairen: "...la Banda de Música de Tolosa a quienes esperará a la entrada del pueblo una Comisión del Ayuntamiento". Baina Tolosako urte haietako Bandako kideen artean galtza motxakin Zalakain eta Paotxa zeuden, gero Incansables txarangarekin makina bat urtetan etorriko zirenak pestetan jotzera.

Leitzan urte gehien jotzen aritu den txarangeroa Canario izanen da, eta gure herriko festetako oroitzapen zaharrena bitxia du oso. 1969ean Canario Hernaniko Zapateron tallerrean zegoela bi gizon puska sartu ziren "Zapa"ren bila: Martin Mariezkurrena "Mutilzar" eta Inazio Larraz. Pestetarako atabalari billa zetozen. "Zu al zara Zapateroa? Atabaleroa behar dugu Leitzeko pestetan, goazen"! Zapateroa hartu, kotxean sartu eta Leitzara ekarri zuten. Canario bere aldetik, lagunekin etorri zen Leitzako festetara eta Zapatero, Paotxa, Zalakain eta hauekin musika jotzen aritu zen parrandan. Nahasketa, nonbait, ez zen oso gaizki atera.

Hilabeteak beranduago Ergobiako Estanko tabernan Leitzan elkarrekin musika jotzen aritutako 5 lagun bildu ziren: Jesus Mari Zalakain "Pipas", (bonbardinoa), Jose Francisco Esnaola "Paotxa" (tronbona), Domingo Castro "Sietemesino" (tronpeta), Felipe Sagarna "Zapa" (atabala) eta Joaquín Ortega "Canario" (saxofona). Denak ziren musikariak eta txaranga desberdinetan jotzen hasiak ziren, baina elkarrekin, oso gutxitan. Norbaitek esan zien "zergatik ez duzue elkarrekin txaranga bat osatzen? Talde bikaina osatzen duzue!" Pentsatu eta egin. 1971 urtean, 5 egun ahaztezin bizitu zituzten bost musikariek elkarrekin Leitzeko festetan.

1971, hasera gogoangarria Leitzan

Joxemari Astarla zegoen alkate, eta Carlos Gaztelu Aurrerako lehendakari. Aurrerak egin zien musikero haiei Leitzara etortzeko gonbitea. Canariok 19 urte zituen. Ez zuen kotxerik, ez eta gidatzeko baimenik ere. Leitzarrak joan zitzaizkien kotxearekin Hernanira bila, Leitzara ekartzeko. Zapa eta Canario Hernanin bildu eta Sietemesino Billabonan hartu eta Leitzara etorri ziren. Beste aldetik Pipas, eta Paotxa Tolosatik etorri ziren eta Leitzan elkartu ziren.

Gaur Zortziko Labetxea dagoen pareta baino behereago aparkatu zuten kotxea. Kotxetik atera orduko haiengana etorri zen gizon batek zuzenean halaxe esan zien: "Benga, yo!" Sietemesinok artean ez zuen euskararik batere ulertzen. "Tú, que?" erantzun zion Sietek, berari buruz zozer esan behar zuela pentsatu-



ta. Gizonak berriz: “Tira, yozazue!” Canariok ere ez zuen ulertu baina gizonaren keinuak ikusita Sieteri esan zion, “Oye, creo que esto va de empezar a tocar. Vamos a sacar los instrumentos y empezamos.”

Ez kafe eta ezta maletak kotxetik atera ere. Iritsi ziren bezala instrumentuak atera eta jotzen hasi behar izan zuten. Halakoxea izan zen Leitzeko allaera. Ohartzerako, bost gazteek sekulako jende pila zeukaten atzetik. Momentua aprobetxatu beharra zegoen! Jo eta jo hasi zien, pieza bat bestearen atzetik. Jendea ordea, ez zen aspertzen. Musikeroak jendez inguratu ta zeuden, eta leitzarrak, dantzan eta etenik gabe pieza gehiago eskatuz. Ordutegirik gabe aritu ziren, egurra!

Bost musikari ziren, tronpeta, atabala, saxofona, bonbardinoa eta tronbona. Bonboa ere behar-beharrezkoa zen, ordea. Aurreran izaten zen bonboa eta Tiburtziok eta anaia Joselusek (Pituk) hartu zuten lehen urte haietan.

Musikak garrantzi handia zuen festetako programan, baina 1971ko programak dakarrenez, bestelako ekitaldi asko ere ospatu zituzten: herri-kiroletan Patxi

Astibia, Miel Iturrarte eta Olanoren aurka aritu zen aizkoran. Pilotan Zabaleta-Retegi, Txoperena eta Bengoetxea II-aren aurka, eta Bengoetxea III-Elizalde, Martínez eta Iriarteren aurka aritu ziren. Abuztuaren 12an berriz, Amazabal pilotalekuan lutxa libre jaialdia ospatu zen: José Mutiloa, Niño Montañaren aurka, eta Miguel Galarza eta J. Bengoetxea, El Tagua eta Rasputinen aurka borrokatu ziren. Bertsotan azkenik, Lasarte, Lazkao-Txiki, Gorrotxategi, Mattin eta Arozamena aritu ziren. Gaur bezala hortaz, garai batean ere, programa bete-betea izaten zuten Leitzeko pestetan.

Festetako “ultratraila”

Gaur bezalaxe 1971n herritar askorentzat pesta egunak ziren baina musikariek lana erruz egin behar izan zuten. Kalez kale ibiltzen ziren eta Oialde taberna zuten bilgune nagusia. Jubilatuen elkarerik ez zegoez, Huartenea 1eko beheko solairu oso osoa hartzen zuen tabernak. Areto ikaragarria zen. Bertan gosalduta, bazkalduta eta afalduta egunero. Ez ordea, musikarik gabe. Platera eta platera artean, instrumentuak atera eta jotzen ari behar izaten zuten, bazkal ondoreak orduak eta orduak luzatzen ziren... musika maratonia zen hura!

Garai hartako ostatu guztietatik pasatzen ziren. Larrea tabernan joare bat izaten zen zintzilik. Txaranga bertaratzen zen guztietan Zapa atabaleroa joarearen azpian jartzen zen eta jo ahala “tin-trikitrin-tin” harekin jolasean aritzen zen. Arrarasen Bodegara ere joaten ziren, Sagastira, Pakonera, Arakindegira, Koxmen etxera, Zirkulura, Ojalateronera eta abarrera. Pasakalleak, jotak eta ariñ-ariñak, inauterietako zeozer, mejikar bat edo beste, eta pasadobleren bat zituzten erreperitorioan. Ez zen beste munduko musika eskaintza baina entzuleak txoratzen zeuzkaten.

Goizeko 4ak arte jo ta fuego jotzen aritu eta leher eginda oheratzen ziren. Aieneko herrian egiten zuten lo uzten zieten arte... 7 t'erditarako Tiburtzio bonboa astinduz hantxe sartzen zelako gelan, baum-baum-baum! “Benga gora denak, dianako ordue diu eta!”

Urte haietan “Diamantes” orkrestak jotzen zuen urtero festetan. Gaur ez bezala, egunero bi diana izaten ziren Leitzan, goizeko 7tan txistulariek jotzen zuten, eta 8tan Orkrestak. Egun batean Incansableak izanen zirenak (artean ez zuten izenik) eta Diamanteek elkarrekin jo zuten diana. Zapa kajarekin azaldu zen karrapera eta Diamanteen bateria Javier ere bai. Bi tanbor behar ez zirenez, Javierrek esan zion Zapari: “segi lasai, lotara, utzi nere kontu diana”. Bi musika taldeek batera diana joaz herriari buelta eman eta karrapera itzuli zirenean Zapa aurkitu zuten bertan. “Ez al zara ba lotara joan?” galdetu zioten. Zapak, “bai, joan bai beño ez dut etxea aurkitu”. Karrapetik Aienera (gaurko Zubiturren etxera) abiatu eta ez aurkitu, alajaina! Despistatu hutsa bait zen gizona!

5 egun haiek ahaztezinak izan ziren. (Erne! 5 egun esan dugu, festak abuztuaren 14ean bukatzen zirelako. 15eko festa eguna, ez zen 1973 arte iritsi). Gaztetxo haienez otordu guztiak eta loa debalde egitea, eta gainera soldata bat ateratzea sekulako lorpena zen, bai horixe! Gainera hura ez zen Leitzan bukatu. Leitzatik Goizuetara joan ziren, gero Ergobiara, eta segidan 13 egun egin zituzten musika jotzen. Arrakasak aurreikuspen guztiak hautsi zituen. Halako batean Pipasek besteei esan zien: “ez al zaizue iruditzen hau sinesten hasteko garaia dugula?” Bai, noski, hura sinesten hasteko proiektua zen.

Canarioren eskola

Canariok ez zuen musikaririk ezagutu bere etxean. Ama kantuzalea zuen eta askotan aritzen omen zen etxeko lanetan abesten. Semearen musikarako dohaiak ikusi zituenean izugarritzko poza hartu omen zuen. Umetan Jesús Zubimendi, Hernaniko organo-jotzaileak pianoarekin zeozer erakutsi zion Canariori.

8-9 urtekin Hernaniko musika-bandan hasi eta bertako klarinetea utzi zioten. José Antonio Ruiz Bona,

bandako zuzendaria izan zuen irakasle. Dena dela, haundiegia geratzen zitzaionez, haseran rekintoa hartu behar izan zuen, instrumentu txikixeagoa. 1960ko abenduaren 24ean, 9 urte zituela Hernanin plazaratu zen lehenengoz, “Olantzaro” izeneko Eguberrietako Zortzikoa joaz. 12 urtek arte Ruiz Bona zuzendairarekin jarraitu zuen musika ikasten, baina hor bukatu zen musika-maixuekin hasitako bidea. Handik aurrerako guztia bere kabuz belarriz ikasi zuen.

Canarioren musikarako dohaiak eta belarria, ordea, ezin finagoak ziren. Geroztik berak 40 bat musika-pieza sortu ditu txarangarako (tartean hurrengo orrietan dituzuen partituretan jaso ditugun Leitzari eta Leitzeko txistulariei eskainitakoak) eta 250-300 konponketa besteek egindako kantak txarangara egokitzeo. Canarioren partiturak oso ezagunak egin dira eta Euskal Herriko txaranga askok erabili dituzte batean eta bestean.

Incansables izenaren sorrera

Egun batean Larrean jotzen ari zirela, parean senar-emazte batzuk zituzten eta andrea (norbaitek ba al daki nor izan zen?) hurbildu zitzaion Canariori: “oye, cómo se llama esta txaranga?” “No tiene nombre todavía”, Canariok. “Pues el día que se lo pongáis, ponedle Incansables, pues no paráis”, erantzun zion andreak. Musikariek harriduraz entzun zuten andreak botatakoa eta izen haundi xamarra iruditu zitzaion haseran.

Izenik gabe saio batzuk egin zituzten baina iritsi zen txarangari izena jartzeko ordua. Leitzako andre haren pasadizoaz gogoratuta hark proposatutakoa ontzat ematea erabaki zuten. 1973ko festetako programan, lehenengoz “Incansables txaranga” aipatzen da, baina begira zer dion 1972koak.

1972 urtea

Bost txarangeroak Gipuzkoako beste herri batzutan musika jotzeko elkartu ziren. Elkar bikain hartzen zuten eta herri eta auzo mordoska pasa zituzten. Leitzako inauteritan ere jo zuten aurrenekoz, eta noski, pestetan ere bai. Oraindik, ordea, ez zuten Incansables izena erabili. Txapak jotzen Joxe Arozena aritu zen, eta akordeoia jotzen, Altuna. Pestetako programan ohar bat dago musikari buruz: “durante todos los días de Fiestas, las calles de Leiza se verán animadas con la charanga y Peña del C.D. Aurrera”. Alegia, Incansables izanen zenari, 1972an “Aurrerako Txaranga eta Peña” deitzen zioten.

Hasitako abentura ederki mamitzen ari zen eta txaranga indartzea pentsatu zuten. Bi tronpetero hasi ziren, bi saxofon, bi ahotsetan aritzeko, eta aurrerantzean txaranga 8-9 lagunek osatu zuten.



Leitzan etxekotzat zituzten. Zenbait urtez, Gaztelutarren etxean egin zuten lo eta amona Mikelak gosari ahaztezinak prestatzen zizkieten. 72ko inñauteriak bukatu zirenean kotxea arrankatzen ez zuela gelditu zen Canario etxera itzuli ezinik. Beste kotxe bat hartzea edo bertan lotan gelditzeko ohea eskaini zizkieten eta bigarrena aukeratu zuten: Monteroren etxean lotan gelditu. Nonbait ez zuten oso gaizki zaindu eta geroztik harreman handia egin zuten Pilar, Tiburtzio, Pitu eta abarrekin. Zenbat holako urte hauetan?

1972 urtean Hernaniko Sanjuanetan jo zuten aurrenekoz, eta hor ere hutsik egin gabe jo dute gaur arte. Hurrengo urtean herri mordoskatik deitu zieten eta txaranga ikaragarritzko martxa hartzen hasi zen. Laister etorriko ziren Tolosako inñauteriak, tanborradak, Sanfermiñak, eta gaur arte iraun duen abar luze luze bat.



Eta handik aurrera zer?

1981 urte aldera txaranga neguan zehar entsaia-tzen hasi zen (ordurarte ez bait zuten egiten), eta halaxe jarraitu dute gaur arte. Kantak egin eta kanta ezagunen konponketak egiten zituen Canariok, eta hobekuntza, jakina, nabaria zen. Berak sortutako lehen kanta Zapa zenari eskainia izan zen (1980n Batallón Vasco-Españolek erahila), eta aurrerago egin zien kanta bana Sietemesino zenari eta Paotxari ere, alegia, txarangako sortzaileei.

Canariok Mexikar kanta bikainak ere egokitu zituen, manboak, rocka... Sekula ez zion beste inori partiturarik eskatu. Bere belarri paregabeak egiten zuen kantak txarangaratzeko lana, eta azkenaldian, zenbait Incansable gazteekin egindako elkarlanak. Denborarekin LPak eta CDak iritsi ziren. Segi eta segi... gaur arte. Nekea bai, askotan sentitu dute, baina



ez dute inoiz etsi. Hutsik egin gabe Leitzan, Iñauteritan eta Festetan aritu dira jotzen. Familia askotan, etxekoak bezala sentitu dira: Gaztelutarrak, Miren Irurtia, Hernandorenataarrak, Monterotarrak, eta abar.

Txokoko Marikruz ere ongi gogoan dute. Ama bat bezalakoa izan delako haientzat urte luzeetan. 1978n Canario giltzurrineko koliko batekin iritsi zen festetara. 15 minutu baino lehen Marikruzek Txoko taberna gaineko gela bat prest zuen medikua, ur epeleko poltsa eta sendatzeko behar zuen guztiarekin. Juan Joxe Gazteluk sendabelar batzuk ekarri omen zituen kolikoa sendatzeko. Ordu batzuk beranduago Canario kalean zen saxofonarekin!

Herriz herri Euskal Herri osoan zehar aritu dira geroztik, baita inguru hauetatik urrun ere. 1995ko ekainaren 18an omenaldia egin zitzaion Leitzan. Eta

ordurako, ondoren ageri den pieza egin zuen Canariok: "Leitzako Herriari". Egindako azkena, berriz, txistularientzat egindakoa da: "Anjel Alduntzin eta Leitzeko txistulariei". Pasakalle hau, Eskubi zenaren omenaldian 2019an entzun ahal izan zen aurrenekoz.

Eta halaxe, urterik urte, ohartzerako, 1971n Leitzan hasi zen abenturak 50 urte bete ditu. Ez dira musika-talde asko izanen 50 urtez segidan herri berean musika jotzen edo beste edozein langintzatan aritutakoak. Zenbat ordu, zenbat kanta, zenbat parranda eta zenbat izerdi eta istorio gure herriko kale eta baserrietan barrena? Auskalo! Zalantzarik gabe, kostako da inguruko herrietan halako historia egin duen talderik aurkitzea. Zorionak koadrilla osoari!

IBERO



Incansables txaragari eta Canariori omenaldia egin ondorengo argazkiak, 2021eko irailaren 5ean.



Eskertza: hau idazteko Gaztelutarrak, Tiburtzio, Soro, Lasarteneko izeba, Canario, Tomaxin eta abarrekin hitzeggin da. Milesker denei!

Ez daitezela beste 34 urte pasa!



Erran.eus/Ttipi-Ttapa-k utzitako argazkiak

2007. urteko udaberria, gogoz gainezka hasi genuen Aurrera K.E. pilotariok. Nafarroako Herriarteko txapelketa aurkeztu zen egunetik, ilusio berezi bat sumatzen zen Amazabal pilotalekuan burutzen genituen entrenamentuetan. 1972 eta 1973. urteetan lortu zena, berdintzea genuen amets.

Ilusio hartaz jabetzeko, ez zen oso azkarra izan beharrik. Kalitate haundiko pilotariez osatutako taldea ginen, pilota irakasle jakintsuez aholkatuak geunden eta pilota batzorde langileak, fin, gidatzen gintuen. Amazabal pilotalekuan, beste hainbatekin batera, maiz biltzen zen Hilario Olano pilotazale ohiak, askotan errepikatu zuen udaberri hartan esaldi hau; “Bai talde politte duzuela, Mikel”.

Taldeakako fasea 2. postuan amaitu ondoren eta final-erdiak Lizarraren aurka (orduko txapelduna) “zorte” pixka batekin gaindituta, 2007ko uztailaren

7ko arratsalde hartan, Iruñako Labrit pilotalekuan geunden. San Fermin eguna zen, baina barkaidazue, Leitzako pilota eskolaren eguna zela esaten badut, goizean Oinatz Bengoetxeak (San Fermin torneoko partida) eta iluntzean Abel Barriolak (Nafarroako 4½ko finala) jokatu baitzuten. Ba ahal dago urtez urte egindako lanaren aitortza jasotzeko modu hoberik?

Finaleko eguneko kontakizun luzerik ez dut egingo, irakurle. Ez gogorik ez dudalako, oroitzapen garbirik ez dudalako baizik. Leitzatik gerturatutako ikusle kopuruak, bertan egiten zuen beroak, finaleko tentsioak eta inguruan sortutako ilusioak, txapela eskuratzearen oroipen garbirik ez izatea eraman ninduten. Batzuek esango dute erantzunkizun guztia 4. partidako pilotariak izan genuela baina ez nator bat. Aurreko partidetan lortutako emaitzek, batzuek beraien partida irabaziz eta besteek ondoren profesional izango zirenen aurka duin borrokatzearen ondorioz, gure partidua irabazi beharrik izan gabe, txapela lortzeko aukera eman ziguten. 19 tantu nahi-koak izan ziren loria, txapela, jatzeko.

Lortutakoa atzean utzi eta Euskal Herriko Herriartekoa jokatzeko gonbita eskuetan, Arabako Maeztu herriari uste baino errezago gailendu gintzaion. Oharkabean, Nafarroako Herriarteko txapelketa eskuratu eta Euskal Herrikoa borrokatzeko lehian geunden. Berriz, Bizkaiko herria izan genuen aurrean eta historian lehenengo aldiz, Leitza, Euskal Herriko txapeldun suertatu zen. Leitza esaten dudanean, inguruko herriak ere txapel berdinean jantzi nahi nituzke, Areso eta Ezkurraz gain, Araitz bailarako Uztegi herria eta Larraungo Lekunberri ere ordezkatuak egon baitziren Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketan.

3 aste lehenago Iruñan gertatu ez bezela, Arrasaten bizi izandakoaren oroitzapen garbiak ditut. Leitzar pilotazale ugari, taldekideen talde izaera (aste barruan Uarkape pilotalekua ezagutzera egindako talde-bidaian hasi ginen finala irabazten), berotzerakoan Mikel Olazabalek eskainitako segurtasuna, ... Ez zait ahaztuko, batzordekideetako batek, Pakittok, barruan disimulatu ezinik zeraman poza. Final aurreko aste osoa, emandako elkarrizketa eta adituekin izandako elkarrizketetan, Berrizi irabazteko “ez deko-sue aukerarik” entzuten pasa baitzuen.

Txapelak eskuratzeko gakoa, nere ustetan, ez zen izan kalitate handiko pilotariak (Olazabal eta Jaunarena) taldean izatea, taldeari talde izaera, konpromisoa

eta oreka emango zion pilotari multzo haundi batekin (Alduntzin, Zubillaga, Lansalot, Jaunarena, Aranburu, Goikoetxea, Iriarte, Alustiza, Sagastibeltza, Olano, Aldaregia, ...) parte-hartzea baizik.

Udaberri-uda gogoangarri horri amaiera emateko, ezin ahaztu Leitzako herriak San Tiburtzio egunean eskainitako txalo zaparrada. Askotan urteak pasa ondoren ohartzen gara ekintza batek ze esanahia duen. Txaloak hasiera batean geure sentitu arren, 15 urte pasa ondoren, jabetzen zara urte hartan gertatutakoa ez zela kasualitatez pasa. Aurretik egindako lanaren emaitza izan zela, eta agian, Aurrera K.E.ak babestuta, Julian eta Juan Marik, Joxe Marik, Eugeniok, Juan Joxek eta Juan Marik, Tomasek, Andresek, Anak eta Mari Josek, Pakittok, Sagrariok, “Enbeitak”, “Mitxelek”, Vicentek, Narcisok, “Txopek” eta ahaztuta utzi ditudan boluntario askorekin elkarbanatu beharrekoak izan zirela abuztuak 10ean jaso genituen txaloak.

Pilotan, pilota frontisera bota eta bueltan datorren bezela, bizitzan, norberak jasotakoa itzultzea funtsezkoa delako. Eskerrik asko!!

MIKEL IRIARTE ARTOLA,
AURRERA K.E.KO PILOTARI OHIA.



Erran.eus/Ttipi-Ttapa-k utzitako argazkiak



Duela hilabete pare bat, Herri Aretoan Leitzari buruz hitz egiteko aukera izan nuen. Bideotxoren bat eta argazki askoen laguntzaz, Leitza fisikoaren inguruan aritu nintzen. Axaletik, baina atal ezberdinak, azaltzen saiatu nintzen. Egia esanda, jendearen harrera oso ona izan zen, eta ondoren komentatu zidaten baliagarria izan zela eta gustura egon zirela. Horrekin batera grabatuta ote zegoen, galdetu zidaten behin baina gehiagotan. Hori dela eta, eta nahiz eta berdina ez izan arren, hemen PLAZAOLAKO aldizkari honetan horren laburpena egiten saiatzea otu zitzaidan. Pena argazki batzuk besterik ez direla agertuko, baina mereziko duelakoan, hementxe azaltzen ahaleginduko naiz.

EGIASMOAREN XEDEA

Oraingo honetan beraz, sakontasunik gabe Leitzari buruzko oinarritzko informazioa eskaintzea da helburua. Egia esanik, arlo, atal, gai asko dira landu beharrekoak, Leitza hobeto ezagutu dezagun; bai. Baina gaurkoan, Leitza “*fisikoari*” buruz ariko gara; gure mendiak, basoak, errekek, mugak, landareak, fauna...

Denok gure inguruaz, gure inguruneaz jakin badakigu, baina zer ikasi ere badugu, noski, eta horrela guztiok aberastuko dugu geure burua.

Oinarria: mapa / maketa...

Azalpen honetan mapa izanen dugu abiapuntu eta ibilbidearen makulu. Hau guztia hobeto ulertarazteko bada mapaz gain, ikaragarri gustatzen zaidan maketa ederra. Dena den, eta ikusi gabe baldin baduzue oraindik, hemendik udaletxeko goiko aretoan azkeneko urte hauetan dagoen aipaturiko maketa ikustera gonbidatzen zaituztet; niretzat ikaragarria, benetan...

Sarrera hau pertsona baten izena aipatu gabe ezin utzi, guzti honi berak eman baitio zeresana eta nik dakidan gutxi horren parte handia berengandik bait datorkit. Horregatik guztiagatik, nahita ez, Joxe Migel Elosegiren irudi eta pertsona azaldu beharra lehenbizi.... Eskerrik asko Joxemigel!!!!



1. KOKAPENA

Gure ingurunearen azalpena egiterakoan, itsasoa agertuko bagenu argazkitan, “*hau ez da Leitzak*” esanen genuke, noski, baina garai batean egun ezagutzen dugun eremu guzti hau itsasoko uretan murgildurik egon zen.



Egun Leitzak hartzen duen eremua kontuan hartuz eta bere sorrerari dagokionez, geologia ikuspuntutik, bi zati nagusitan banatzen da, bata hareharri eta konglomeratuak nagusi diren azpiak, Paleozoiko (400 milioi urte) eta Triasiko (230 milioi urte) garaikoak. Eta bestea, “*berriagoda*” Jurasiko (180 milioi urte) eta Kretaziko (100 milioi urte) garaikoak, non karaitza eta arbelak dira adierazpen nabarmenak. Urdolan, harri bolkanikoak ere aurkitu izan dira.

Gorritartan –Ibiur barrena pasatzen den failak banatzen ditu bi zati hauek.

Dena den, hau guztia eguneratuz, aipa genitzakeen lehen bi datu zehatzak: Leitzak **58 km²** ditu azalera eta itsasoarekiko 475 metroko altueran dagoela (estazioan agertzen da garai batean eginiko neurketa).


1.1 Mugak / Mugarriak

Zazpi herrirekin egiten du muga Leitzak, eta guztira bere luzera neurria **39,5 km**-koa da. Mapan ageri den moduan **84** (86 omen, beste 2 aurkitu baitira aspal-dion) mugarrirekin topo egiten dugu muga-buelta eginez gero. Eta honako herriak dira mugakideak: **Areso, Berastegi, Goizueta, Beruete, Ezkurra, Huitzi eta Gorriti**.

2. BARNE BANAKETA

(herri kaxkoa, baserri-auzoak...)

2011. urtean, Euskara Batzordeak proposatuta Leitzeko kale eta baserri-auzoak ofizialki izendatu eta onartu izan ziren. Dena den, atal hau kuriositate moduan agertzen dut honetan, Herri-aretoan saioa egin genuenean galdetu bait nuen, herriak berak, baserri auzoak kontuan hartu gabe, zenbat ote ziren herrian dauden etxe-auzoak edo “barrioak”? Gehienon harridurarako hamahiru direla (13) esan beharra da.



Hauek dira auzo edo kaleen izenak: **Amazabal, Azku, Elbarren, Elgoien, Lizarraga, Manuel Lasarte, Okillin, Patxi Arrazola, San Jose, Done Mikel, Leitzalarreko errepidea, Landa Behekoa eta Uhartte Gotzaina.**

Baserri-azoei dagokionez berriz: **Arkixkil, Eraso-te, Erreka, Gorritaran eta Sakulu.**

Hala eta guztiz ere esan behar dut, urrutien dagoen **Ibero** aldea, Goizueta herriarekin muga egiten duena kasik, beste baserri-auzo kontsideratu zitekeela garai batean. Ibero garai batean ola garrantzitsua izan zen eta honek industria eta ekonomia ikuspuntutik garrantzitsua gertatu zen eta jendearen mugimendu handia suposatu zuenez seigarren auzoa kontsidera zitekeen. Egun, bestelako egoera da eta bisitatzeko moduko gunea bihurtu da.

3. LANDARETZA

Kantauri itxasotik hurbil egonda, Leitza Nafarroako **eskualde atlantiarrean** dagoela jakin behar dugu. Nahiz eta, klima aldaketaren ondorioak hemen ere jasan, **klima atlantiar** deritzon ezaugarri horietan oinarritzen dela esan beharra da; temperatura epela eta euritsua. Hau dela eta, lehen aipatu moduan mendiz inguratutako herria dugu Leitza eta azalera gehiena basoek osatzen dute.

Hosto-galkorrak dira gehien ikusten ditugunak gure mendietan: pagoak, haritzak, gaztainondoak, lizarrak, altzak... Nahiz eta azalera txikiagoak izan, kanpotik ekarritako baso-landaketen espezieak ere baditugu hemen: pinudiak, alertzeak, haritz amerikarrak ...

Ondoan agertzen den koadroan azaltzen den moduan zuhaitz eta zuhaiska klase guztiak iruditan ez ezik, Izeietako ingurune botanikoan bertan ikus daitezke.

Horrez gain, gure naturan ditugun irastorlekuak eta larreak ezin ditugu ahaztu.



4. FAUNA

Animalien dibertsitatea ere interesgarria da ingurune hauetan. Sailkapen klasikoari kasu eginez **ornodunak** ikusiko ditugu lehenbizi.

Erreketan, **arrainak**, bi dira espezie nagusiak: amuarrainak eta eskailuak.

Ingurune hezeetan **anfibioak** ere bizi dira, horien artean, baso-igel gorriak, apo-arruntak, txantxikuak, uhandre palmatuak eta arrubioak ikus genitzake.

Narrastiei dagokionez, sugandilak, musker berdeak, ziraunak, suge gorriak, gorbatadun sugeak eta eskulapio sugeak dira gehien daudenak.

Hegaztietan, pinpinak, txantxangorriak, zozoak, birigarroak, kaxkabeltzak, okilak, zapelatzak, urubiak... eta beste hainbat ikus daitezke.

Ugaztunetan berriz, saguzarrak, basurdeak, orkatzak, katagorriak, muxarrak, lepatxuriak, azeriak eta abar luze bat aipa daitezke.

Ornogabeei dagokionez, animalia guztietatik % 95a izanda, **Artropodoak**, **Moluskoak**, **Anelidoak** eta **Ekinodermoak** dira sailkapen nagusia osatzen dutenak.

Dena den, bakoitzaren barnean azpisailkapen zabal egin daitekenez, ehunka intsektu, armiarma topa daitezke gure inguruan.





5. EZAUGARRI FISIKOAK

5.1 Mendi-lerroak eta gainak...

Maketa begiratzuz gero, edo satellite batetik begiratuko bagenu, argi eta garbi ikus genezake Leitzako lurraldea menditsua izateaz gain, bertan mendilerro ugari, ilarak osatzen dituzten mendi-multzoak, ikus daitezkeela. Nagusienak aipatuko ditut hemen.

Norabideari begiratzuz gero, Leitzalarrean *Ipar-ekialdetik Hego-mendebalderantz* orientazioa duen **Mandoegi-Urepel** lerroa dugu.

Bestetik **Arramia-Baztarla-Aizan-Eguzkizko muinoa** lerroa, *Ekialdetik-Hegoaldera*.

Guratz - Okabio (Axuste-Okabio-Hiru Pagoeta) - Urtezar lerroa Hegoa - *Iparralderako* orientazioa (Leitza-Areso muga) duena da beste bat.

Eta **Kornieta - Beordain**, *Ekialdea-Mendebaldea* norabidea (Ezkurra eta Berueterekin muga) duena hemen aipatuko dudana laugarrena, egun "Parke Eolikoa" dena, alegia.



Oharra: Izenak, altuerak... begiratzuz den tokiaren arabera aldatzen dira.



Altuerari dagokionez, handienetik hasita hauek ditugu (*batzuk, duda-modukoak ez ditut aipatu*) : **Eguzkizko muinoa** (1082 m.), **Kornieta** (1062), **Urepel** (1055), **Aizan** (1054), **Petriketa** (1057), **Ansolitzaundi** (1056), **Aritz** (1040), **Ansolitzxiki** (1035), **Altzegi** (1011), **Bagorringo (Barrengo) muinoa** (991), **Artzangaztelu** (978), .

Guartz-mendi (956), Baztarla (942), Mukarrain (926), Biuztain (904), Soromearreta (864), Arramia (862), Astobiaga (852), Erroizta (851), Irupagoeta (838), Mendibil (825), Labate (760), Tranpaxo (729), Odion (724), Urtezar (706), Astaika (496) ...

5.2 Errekak ...

Ur ugariari begira, nonahi aurki genitzake ondoren erreka ederrak sortuko dituzten iturriak. Askoren-tzat, segur aski, ezezagunak diren ur-saltoak, ur-bil-duak topa genitzake gure bazter hauetan.

Ur guzti horietatik, alde batekoek, orokorrean esan-
da, **Urđiñola, San Fermin** eta **Sarasaindik** datoze-
nak, alegia, **Urumeara** isurtzen dituzte beraien urak,
Donostian itsasoratuz....

Eta besteak, **Erasote** eta **Gorritzarandik** datozenak, Leitzalarretik **Frankira** doazenekin elkartuta **Oria** ibaira zuzentzen dira Leitzaranen eta, Orion itsasoratzen dira Kantauri itsasora bere urak eskainiz.



Ohar moduan aipatzekoa iruditzen zait Belate alde-
tik Guratzera doan mendi-lerroa, inguruan dugun **ur-
isurialdea** dela. Hau da, nolabait kokatzearren,
Berueterekin muga egiten duen gainetatik (Oringo
itturrie) biderei jarraituz, Erasote errearen goi-alde-
tik hain zuzen, ur guztiek gure aldera datozenak, ale-
gia, **Kantauri itsasoan** amaitzen dute beren ibilbidea.
Bestaldera doazenak berriz, amaieran **Mediterrane-
o**arekin topo egiten dute. Horregatik, *ur-isurialdea*
deitzea.

Horretaz gain, egun mantentzen diren lau ur-kanal ere badira, han-hemenka bestelako ur-putzurekin batera.

6. MEGALITOAK

Harritzekoa bada ere, lasai arren esan genezake, orain 6.000 bat urte gure lurralde hauetan gizakia bizi zela.



Hau ziurtatzeko ikerketez gain, artzainen kultura erakusten duten aztarna megalitiko ugari ikus ditzakegu inguruan.

Horien artean Mendibileko trikuharria ikus daiteke, baina baditugu beste asko; Urdolako harrespila, duela 4.000 urte ingurukoa eta bestetik, mendi gain askoan tumulu, trikuharri eta kromletx edo mairu-baratza ugari.

Hauek guztiak markatuta daude mapatan eta mendietan, noski.


Mendi ibilaldi ezberdinak aurkeztu nahi ditut; kokapena norabidea, desnibela eta luzera azalduz, bakoitza bere grafikoarekin. Esan beharra da, ibilbide hauek 9 Plazaola aldizkarietan azalduta daudela. Datu orokorraz gain, lotura dituzten istorioak, toponimia, zehaztasunak... azalduz. Bakoitzean zein PLAZAOLAn den aipatzen da.





Zer egin eraso matxista baten aurrean?

Erasoa jasan baduzu eskatu laguntza barran dagoenari
Erasoa ikusi baduzu, galdetuiozu laguntzarik behar ote duen



- Intentsitate altuko erasoak:

Kolpeak, jipoiak, bortxaketa saiakera, bortxaketa, erailketa...

- Intentsitate ertain eta baxuko erasoak:

Begiradak, ezerosotasuna sor dezaketen bestelako portaerak, baboseoa, mehatxuak, gorputz ukitzeak, jelsiak, xantaiak, iruzkin iraingarriak eta umilatzaileak, hitzeko abusuak, irainak, ukipen ez onartuak...

Denak etxera bidean

Halako batean badatoz hainbeste desio izan ditugun Leitzeko Pestak. Hauek sortzen diguten poz eta ilusioz, gure baitan bulkada indartsua sentiturik, pestetan parte hartzeko prest gaude: lagunarteko nahiz herriko otorduetan, ekitaldi eta ikuskizun kulturaletan, txosnaren bi aldeetan, urtean zehar izan gabeko solasaldi luzeetan, eta nola ez, auzolanean eta aldarrikapenean.

Izan ere, Sare Herritarra osatzen dugu komunitate anitz eta zabalak, gure jarduna ardazten duen lema aldarrikatzen jarraitu beharrean aurkitzen baikara, hau da, herritar guztientzat eskubide guztiak berma daitezela. Izan ere, sufrimendurik, biktima gehiagorik eta euskal preso eta iheslaririk gabe, elkarbizitza eta bakea oinarri dituen jendarte bat eraikitzearekin amesten baitugu guk. Eta hori lortzea da, Leitzako Sare Herritarrek bere buruari jartzen dion erronka.

Ekainaren 18an lau urte bete ziren Sanchez Espainiar Estatuko presidenteak publikoki esan zuenetik Espainiako Gobernuak prozesu bati ekingo ziola hiru hamarkada luzez aplikatutako salbuespeneko espetxe-politika kentzeko eta euskal presoek espetxe-politika arrunta ezartzeko. Adierazpen horrek itxaropena sortu zuen euskal presoek eta haien senideen artean, baita euskal gizarteko pertsona askorengan eta guregan ere.

48 hilabete pasatu dira, eta aurrerapausoak eman dira preso horien urruntzeari dagokionez, baina oraindik asko falta da Espainiako Gobernuak duela lau urte hartu zuen konpromiso hori betetzeko. Datuek moteltasun ulertezin bat islatzen dute: 195 euskal presoetatik, 19 Frantziako espetxeetan daude; 70, Espainiako espetxeetan, eta 106, Euskal Herriko espetxeetan. Hau da, bi urte geroago, %36 Espainiako espetxeetan dago oraindik.

Gradu-progresioetan dagoen blokeoa aipatu nahi dugu ere. Egia da azken urtean ia guztiak euskal preso guztiak pasatu direla espetxeko lehen gradutik bigarrenera, baina ezin da ahaztu 21 preso bakarrik pasatu direla bigarren gradutik hirugarrenera, nahiz eta 60 preso horretarako baldintzak betetzen dituzten, bete duten kondenaren zatia aintzat hartuta. Horrela, gradu aldaketen ukapena ari da bilakatzen presoek etxeratze bidean oztatu nagusienetako bat.



Hau ikusirik, Espainiako Gobernuari eskatzen diogu orain dela 48 hilabete iragarri zuen konpromisoa betetzeko. Gehiago atzeratu gabe. Eskubideez ari gara; ez dira pribilegioak. Lehen eskaera gisa, espetxe-araudia salbuespenik egin gabe betetzeaz ari gara. Eta hala ez den bitartean, elkarbizitzaz, giza eskubideez eta bakeaz hitz egitea ameskeria bat izango da, zoritxarrez.

Eskubide urraketa sistematiko hau gainditzeko, bidea egiten jarraitu behar dugu, elkarrekin, bizikidetzaren alde, bakearen alde eta salbuespeneko espetxe-politika ezarrita duten euskal preso guztiak etxera bidea egitearen alde. Sarek bide hori egiten jarraituko du, orain arte oinarri izan duen aniztasun, zabaltasun eta elkarlana garatuz. Hala egingo dugu pestetan ere. Espetxe-politika horren amaiera eta salbuespen-neurrien amaiera aldarrikatzeko mosaiko bat burutuko dugu abuztuaren 10ean, 12:00etan, Leitzako plazan, "Etxera bidean" lemapean. Norabide honetan, elkartasuna adierazteko burutuko diren ekimen ezberdinez gain, presoek etxeratzea oihukatzen osatuko dugun mosaikoan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Pestetan ere, denak ala inor ez?

Urteak daramatzagu
mugimendu feministatik
jendarte justu eta
parekide baten alde
Pestetan ere,
denak ala inor ez?

Denon ardura delako guztion gozamenerako pestak eraikitzea... **ONGI GOZATU EGUN HAUEK, GORA PESTA FEMINISTAK!** Leitzeko mugimendu feminista-pixkanaka aurrerapausoak eta aldaketak ematen ari garela, baina parekidetasunetik urruti gaude oraindik.

Eta ez hori bakarrik, bizi garen jendarte sexistaren isla diren bezalaxe, bestelako zapalkuntza eta bazterkeriak ere agerian gelditzen baitira pestetan. Aurreko galderen ildotik jarraituta... jatorria beste herrialde batzuetan duten leitzarrek zenbaterainoko lekua dute pestetan? Azal kolorea zuri ez duen zenbat pertsonak hartzen du plaza, esaterako? Esku bakarrarekin konta badaitezke, seinale txarra... Bai, leku pribilegiatua (edo, gutxienez, pribilegiadunena) da herriko plaza pestetan, eta ez da edonor kabitzen bertan. Baina... ez al ziren, bada, denen eta denentzako pestak gureak? Doako kritika bat baino, har bedi gutun hau aldaketarako eta guztiontzako herri bizigarriago baten aldeko aldarri gisa.

Aurtengoan, gainera, bereziki kezkatzen gaituzte pestetan gerta daitezkeen eraso eta jarrerak. Bi urteko etenaldiaren ondoren, presio-eltzean bezala, borborka daude parrandarako eta deshinebizioarako gogoak, eta norbere askatze gogo hori sarritan bihurtu da beste norbaitentzat kalte. Pestak ospatu diren herri askotan izan dugu honezkero eraso ugariaren berri. Beraz, adi: ederra da parrandaz gozatzea, baina zure gozamina ez dadila izan beste norbaitenaren muga.

Argi diogu, pesta askeak nahi ditugu, benetan guztiontzat gozagarri izanen direnak, eta ez dugu inolako jarrera edo eraso matxista, arrazista edo lgtbqfobikorik onartuko. Nazkatuta gaude erasoen aurkako protokoloak sortu behar izateaz, telefono zerbitzuak martxan jartzeaz, gure guneak kartekez bete behar izateaz, pesta giroan gustura dantzan gaudela komentario edo begirada nazkagarriak jasan behar izateaz.

Aldi berean, gizonezkoei helarazi nahi dizuegun mezua argia eta zuzena da: ardura nagusia ZUENA da, erasotzailerik gabe ez baitago erasorik. Baduzue dagokizuen ardura hartzeko garaia (hobe berandu, inoiz baino). Ez gaitzazue erasotu, ez begirada lizunik egin, ezta ukitu edo komentariarik egin ere. Utzi guri ere lasai, pakean eta nahi bezala pestez gozatzen. Eta, garrantzitsua: ez zaitezte erasotzaileen konplize izan. Ez isildu jarrera matxisten aurrean, salatu eta moztu itzazue, baita (eta batez ere) zuen 'kolegengandik' datozenean ere.

Denon ardura delako guztion gozamenerako pestak eraikitzea...

**ONGI GOZATU EGUN HAUEK,
GORA PESTA FEMINISTAK!**

LEITZEKO MUGIMENDU FEMINISTA





ONGI PASATU LEITZAKO PESTAK!



Kaxkabeltzako elkartekide guzien izenean...

ADI AKADEMIA Tel: 680273544
ANE EGIZABAL FISIOETXEA Tel: 948 510730
AINART ILEAPAINDEGIA Tel: 948 510197
AITZIBER BERGARA MASAJISTA Tel: 646568753
ALLIANZ ASEGURROAK Tel: 948 510490, 657603435
AMAIA ARRAINDEGIA Tel: 948 510590
ANTEK ENTRENAMENDU PERTSONALIZATUA Tel: 671372662
ARIZTELA Tel: 948 610611
ARZALLUS HARATEGIA Tel: 948 510377
ASTITZ LIBURUDENDA Tel: 948 510262, 638012084
BELARRA BELARDENDA Tel: 948 510192
BI PAUSO OINETAKO DENDA Tel: 948 513611, 680187853
BIXIGARRI FRUTERIA Tel: 677345496
CATALANA OCCIDENTE Tel: 948 610685
EDR GUNE Tel: 669695167
ERBITI FARMAZIA Tel: 948 610636
LARRAYA FARMAZIA Tel: 948 510599
MARCIA FARMAZIA Tel: 948 510998
PLAZA FARMAZIA Tel: 948 510032
FRUITUAK ZE GOXO Tel: 948 610612
GARBI DROGERIA Tel: 948 510173, 626823104
GAZTELU ITURGINTZA Tel: 948 510086
GAZTETXO Tel: 948 510741, 619981648
GOXOGUNE Tel: 661543953
HERNANDORENA BURDINDEGIA Tel: 948 510055, 650255863
INAXIO PERURENA KIROMASAJISTA Tel: 649302307
IZASKUN ESTETIKA ZENTROA Tel: 638306110
JAURENA ESTANKOA Tel: 948 510290



Comercios
de Navarra
Nafarroako
dendak

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Diruz lagundutako jarduketa



TIBURTZIO DONEAREN PESTAK ONGI PASA!

KAPRITXO Tel: 619450249
KIDE AHOLKULARITZA Tel: 948 510990
KULUNKA Tel: 948 498298
LANDA BERRI TABERNA Tel: 606599566
LEITZA GARAJEA Tel: 948 510466
LEITZA KIROLAK Tel: 948 610976
LIRAIN JANTZIDEBDA Tel: 676737856
MAIMUR LIBURUDENDA Tel: 948 510146
MOKADUTXO Tel: 657774641
MUSUNZAR Tel: 948 510607
OGI BERRI Tel: 948 610974
OLAIA BAZARRA Tel: 948 510437
PERURENA HARATEGIA Tel: 948 510164
KAMPERBIDE Tel: 669707916
RAKEL ARGAZKILARIA Tel: 687084831
THE BARBER LEITZA Tel: 613149429
TXOKO TABERNA Tel: 948 510227
TXOKOSFERA Tel: 679699533
301K Tel: 620810803
URKIOLA HARATEGIA Tel: 948 510747
ZORTZIKO Tel: 948 510720, 618608209

**ESKERRIK ASKO
LEITZAN EROSTEAGATIK!**



miara
ilapaindegia

Makilaje saioak ere egiten dira, aurrez hitzartuta
pesta onak pasa!

Kale Nagusia, 1 Behea
20492 Berastegi **tel. 943 683 697**

 **LEIMEN**

ERA GUZTIETAKO ELEKTRIZITATE LANAK

JAI ZORIONTSUAK DENOI!

LEITZA ☎ 628 725 396 (Argoitz)
MENDILLORRI ☎ 628 725 397 (David)

ESPEZIALISTAK

HERLIZ

Hemendorena Salazar Jon Ander Y 628055178
Lizarraga Lazcano Julian Maria 616491126
E71430334
Elbarran, 20, 1º, 31850, Leiza, Navarra
leitzapladun@hotmail.com julenlizarra@hotmail.com

Reformas Vicente

Maxi Vicente

Ongi pasa pestak!

606307810
maxivcente1@hotmail.com
C/Amazabal 17-2ºA
Leitza

Gosariak, ogia, pastelak, pastak, tartak...

ZOR.TZIBO **ZOR.TZIBO**

Leitza - 945 510720 Leitza - 945 510720

Pesta onak pasa!

 **FONTANERÍA**
DANI
ITURGINTZA

Fontanería · Gasak · El Berrochuetza
672 18 31 99
iturgintzadani@gmail.com
LEITZA

ONGI PASA PESTAK!

GURATZ-MENDI
ELKARTEA

ongi pasa pestak!



Landa Behekoa, 4 · LEITZA

 **ULI-ZAR** 
ELKARTEA S.L.

iturgintza · kalefazioa · gasa-gasoila
komuneko osagarriak · altzariak eta manparak

☎ 647 525 516 / 689 701 557
Bide-Ondo etxea · ARESO · Elgoien, 10 bajua **LEITZA**

 **CORENSO LEIZA S.L.**

ONGI PASA PESTAK!



© 948 510 600 / 948 510 601 · Fax: 948 510 602 Eluseder industrialdea · ARESO

 **AISLAN S.L.**

AISLAN-LEITZA S.L.

poliuretanozko babes eta injekziozko isolaketa

☎ 618 915 943
Santa Luzia pas., 4 B behea · Buztintxuri · IRUÑA

Leitzako gasolindegia

RAFAEL MUGICAREN ALARGUNA

☎ 948 510 057

EROSLE supermerkatua

Gora San Tiburtzioak!



☎ 948 510 007 / 948 610 657 · LEITZA



Arritxenea

**APARTAMENTU
RURALA**

☎
607 655 061
678 477 528

Elbarren, 16
LEITZA

www.arritxenea.com

PESTA ONAK PASA!



EGUZKI ileapaindegia

LIDIA BILDARRAZ

ongi pasa pestak!

☎ 948 610 649 · Elbarren, 34 / 1 A · LEITZA



MAPFRE LEITZA

Gerardo Arrupea Plaza

ongi pasa pestak!

☎ 948 510 499 · garrupe@mapfre.com



BEATRIZENEA
taberna · jatetxea

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak

PESTA ONAK IGARO!

☎ 948 510 991 · Mikel Deuna, 2 · LEITZA

MENDIGORRI ELKARTEA

pesta onak igaro!

Patxi Arrazola · Leitza



landa-berri



DAIKE

obrak · etxebizitzak · erreformak · aurrekontuak · proiektuak

☎ 688 911 229 / daike@hotmail.com

pesta onak izan

Urto
karrozeria



TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK
JESUS AZURMENDI JAUREGI

ONGI PASA
SAN TIBURTZIOAK!

☎ 943 683 499 / 948 610 664
Kamineros etxea · BERAŠTEGI

Pintura lanak
orokorrean

MELO
pintura lanak

☎ 609 873 178 · LEITZA



Done Mikel, 1
☎ 948 610 909



JEIKI ABESBATZA

☎ 606 393 842

jeiki.leitza@gmail.com

f jeiki abesbatza

ig jeiki_ abesbatza

Gora Santiburtzloak



BULDAIN
inmobiliaria

PESTA ONAK PASA!

FESTA EDER HAUETAN
ZUEN NAHIAK BETE
DITZAZUEN OPA DIZUET

<http://buldain.blogspot.com>

☎ 948 510 534 / 649 476 615 · LEITZA

Javier Razkin
ASEGURUAK

Ongi pasa pestak!

☎ 948 510 338 / 674 745 563

Obispo Uharte, 8 behea · LEITZA

ARIZTIMUÑO ANAIK
ERAIKUNTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak

ONGI PASA PESTAK!

☎ 948 510 202 / 948 510 374 · LEITZA

ORAIN ELKARTEA

jai zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

LEITZA

Gaztañaga
taberna

OTARTEKOAK · PINTXO BEROAK · KAXUELAK

☎ 948 610 708

ongi pasa pestak!

David Barriola **TAXIa**

9 PLAZA

Ongi pasa
pestak!



Tel. 679 71 51 69 · LEITZA

E-mail: dabidtaxia@gmail.com

LEITZALARREA S.L.
aroztegi metalikoa

☎ 948 510 598 / 669 368 991

Landa industrialdea, 20 · LEITZA

Dia



**OKABIO
KAFETEGIA**

SUPERMERKATUA

PESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!

☎ 948 510 731

Landa etxea · Leitza

DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA



Eluserder Industrialdea
Poligono Industrial Eluserder

Tel.: 948 510 610
Faxa: 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)



☎ 948 610 888 / 630 048 770 · Fax: 948 610 863
Eluserder industrialdea, 1 · Areso (Nafarroa)

IZaTe

DIETISTA - NUTRIZIONISTA

Nutrizio orokorra · Guri nutritzioa · Gidatutako hezikuntza ·
Indolezentza eta alergia
LEITZA / NAFARROA

☎ 948 510 062 (Bereko Dabizela)
izate.nutrizioa@gmail.com
izate.nutrizioa.com

(ONGI) PASA PESTAKI!



bilagunleitza@hotmail.es
Tel./Fax: 948 610 985 · Iñurrusta Industrialdea / P2 · LEITZA

Arantxa

ILEAPAINDEGIA

GORA
SAN TIBURTZIOAK!



☎ 948 610 931 · Huarte Gozaina, 8



TXOKO TABERNA



Tostadak - Razioak - Hanburgesak - Bokatak - Platerak

PESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!

Elbarren 22 LEITZA · Tel. 948 510 227



Imanol Echeverria 680 255 718
tantadaiturgintza@gmail.com

AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORRA
AEROTERMIA
EGUZKI PLAKAK
LURREKO SUAK

EGURREZKO GALDARAK
PELETTEKO GALDARAK ETA ESTUFAK
BIOMASA
ZORU BERO-EMALEA
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Kornieta elkartea

Ongi pasa
San Tiburtzioak!

LEITZA



Pesta onak
pasa!

FERRETERIA - PENTSUAK

Tel. 948 513 600
Landa industrialdea, 13
31880 LEITZA (Nafarroa)



31879 BARAIBAR (Nafarroa)



Pesta zorientsuak opa dizkizue!

Tel. 948 504 456 / 948 504 387
asador@galartza.com
www.asador.galartza.com

CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA

ARKITEKTU TEKNIKO
ARQUITECTO TÉCNICO



Landa Ind. - Landa eraikina 1 esk.
LEITZA

948 610 684 | 629 611 912

sagastibeltza@coaatnavarra.org



TALLERES

Ireber S.L.

ONGI PASA PESTAK!

MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA

Landa Industrialdea - Pab. 9B - 10B Leitza
Tel. 948 510 842 - 639 134 464 - Fax. 948 510 843



ARANTXA
taxi zerbitzua



660794326



arantxataxia@gmail.com

Ezinduentzat egokitua
9 Eserleku

Etxebizitza berriak

Edificaciones nuevas

Eraikinak zaharberritzea

Rehabilitación de edificios

Zureko solairu eta teilatuetan espezializatua

Especializados en suelos y tejados de madera

Diru-laguntza eskaerak

bideratzeko aholkularitza

Asesoramiento en tramitación

de ayudas económicas

Energia aurrezteko faktadak

Fachadas para ahorro energético

Igogailuak jartzea

Instalación de ascensores

Konpromisorik gabeko aurrekontuak

Presupuestos sin compromiso

leitzarra
taberna

*ongi pasa
pesta!*

Pintxo eta ogitarteko
aukera zabala

📞 948 510 352
Uharte Gotzaina 2, LEITZA

EREGI

Herri Lan eta Zerbitzuak · Obras y servicios

PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Landa Industrialdea, 2 · **LEITZA**

info@eregisl.com



Leitzako Udalak

PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

leitzarrei, bisitariei eta gurekin
egon ezin ahal izanen duzuen guztiei.

PESTETAKO GASTUEN ZERRENDA 2022KO AURREKONTUA

PLAZAKO MUSIKA	28.597,50€
XAIBOR	1.045,00 €
BURUTIK	726,00 €
PLEURA	1.300,00 €
GOXUA'N SALSA	6.050,00 €
GOZATEGI	7.260,00 €
CHINGONES DE LA RENCLE	850,00 €
ZEYA MAYS	9.680,00 €
RAIMUNDO CANASTERO	1.686,50 €
KIROLAK	4.000,00 €
HERRI KIROLAK	4.000,00 €
UMEENTZAT	6.260,00 €
TOBOGAN AKUATIKOA	2.600,00 €
BUBBLE BALLS	860,00 €
SUZKO ZEZENAK	1.300,00 €
KILIKLON EKOIZPENA ANTZERKIA	1.500,00 €
BESTELAKO PROGRAMAZIOA	15.989,00 €
BERTSOLARIAK	2.200,00 €
ADOS PILOTA PARTIDA	1.089,00 €
GAITEROAK	1.200,00 €
TXISTULARIAK	900,00 €
INCANSABLES	10.600,00 €
ZEZENAK	15.390,00 €
ARKITEKTURAREN ZIURTAGIRIA	200,00 €
ASIER ARRIZABALAGA	6.600,00 €
GIZARTE SEGURANTZA	820,00 €
HONDARRA BILTZEKO MAKINA	500,00 €
HONDARRA ETA PORTEA	1.000,00 €
MAPFRE (ERANTZUNKIZUN ZIBILA)	1.700,00 €
MAPFRE (ISTRIPUAK ETA BALIEZINAK)	700,00 €
MEDIKUA ETA ANBULANTZIA	3.520,00 €
UKULLUN ALOKAIRUA	350,00 €
OTORDUAK ETA OSTATUAK	9.300,00 €
DANTZARI TTIKIAK	400,00 €
HERRI APARIA	4.000,00 €
TXAKOLIA ETA BASOAK	1.300,00 €
JUBILATUEN BAZKARIA	1.500,00 €
OTORDUAK ETA OSTATUAK	1.500,00 €
SAN TIBURTZIO EGUNEKO HAMEIKETAKOA	600,00 €
PROGRAMA ETA PUBLIZITATEA	2.900,00 €
PROGRAMA	2.750,00 €
PROGRAMA LEHIAKETAREN SARIA	150,00 €
BESTELAKOAK	14.515,00€
ARGINDARRAREN KONEXIOA ETA GASTUAK	1.000,00 €
GARBIKETA	2.500,00 €
KOMUNAK	1.210,00 €
LANGILEEN APARTEKO OTORDUAK	1.500,00 €
SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES	2.000,00 €
SOINU ETA EKIPOA	6.305,00 €
GUZTIRA	96.951,50€

Jaietan ere LGTBI+

Festek sozializatzeko era garrantzitsua dira, aisialdirako eta dibertitzeko garaia; nahitaezkoa da balioan jartzea eta aniztasun sexuala eta generokoa ereitea berdintasunezko gizarte bat sortzeko.

Pertsona guztiak berezi eta errepikaezinak gara.

Aniztasunak aberasten gaitu!

www.igualdadnavarra.es



KATTALINGUNE LGTBI+
Servicio Público del Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuko Zerbitzu Publikoa

Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institua

El Amor es el Poder

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua





BERRIDATZ DITZAGUN JAIK

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



Leitzako
Udala

Larrialdia

